

MILIOIKA HAUREK **MUTURREKO POBREZIATIK** ETA **GOSETEATIK**  
IRTETEKO BORROKA EGITEN DUTE

# EGIN BAT HAIEN BORROKAREKIN



 **GARAPEN**  
IRAUNKORRERAKO  
HELBURUAK

**1** POBREZIA  
DESAGERTZEA  


**2** GOSERIK  
EZ IZATEA  


 **PROYDE**

 **PROYDE  
PROEJA**

 **pro:ide**

 **PROCLADE  
FUNDACION**

 **proideba**


 **sea**  
Solidaridad Educativa Alternativa

 **proclade  
yanapay**

 **EDIFICAND**  
Comunidad de Nazareth

 **sopro**  
ORGANIZACION  
SOPRO

**GH** kanpaina 2018-2019  
**OINARRI DOKUMENTUA**



# Oinarri dokumentua

## GH KANPAINA 2018-2019

### Garapen Iraunkorrerako

#### Helburuak: 1. GIHa eta 2. GIHa

### SARRERA

Esku artean duzun dokumentu honek gure aurtengo Garapenerako Hezkuntzako (GH) kanpainaren gaia izango denaren oinarriak ezartzea du xede.

Kontsumo arduratsuari buruz gogoeta egin dugu azkeneko kanpainetan, eta horrekin lotutako hainbat alderdi landu ditugu; orain, nazioarte mailan zehaztutako agendan sartuko gara bete-betean, eta agenda horri jarraitu behar diogu, herritar aktibo garen heinean. **Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH)** dira: **17 helburu** eta **169 xede**, 2030. urtea baino lehen betetzeko eta guztion inplikazioa eskatzen dutenak, munduan dugun tokia edo kokapena edozein izanik ere.


2018-2019 ikasturtean, helburu horietako bi landuko ditugu, gure erakundeek betetzen duten lanean oinarritzekoak –jakingo duzunez, garapenerako lankidetzan aritzen dira–, eta lehenbailehen ebatzi beharrekoak: **pobrezia desagerraraztea (1. GIHa) eta goserik ez izatea (2. GIHa)**. Horrez gain, uste dugu bi gai horiek **giza eskubideak** errespetatzearekin eta betetzearekin lotuta daudela, eta, beraz, nahitaezkoa da horiek betetzea.

Dokumentu honi esker, guztion artean gai horiei lehenbailehen heltzeko eta hurrengo urteetan bi helburu horiek lortzeko premiaren eta beharraren zergatia ulertu ahal izango duzu. Garapenerako erakunde gisa, gure lanaren ertz guztietatik ekingo diogu gosea eta pobrezia erabat erazteari: garapenerako hezkuntzatik –gure ikastetxe, talde eta parroketan, nagusiki–, baina baita lankidetzako proiektuen kudeaketatik, bidezko merkatarizatetik, boluntariorzatetik eta eragin sozial eta politikotik.

Kanpaina honetan eta hurrengoetan ikusiko duzunez, berorien berariazko gaiak zeharkako bi ardatzek zeharkatuko dituzte: alde batetik, **haurren eskubideek**, kalitatezko hezkuntza (haurren eta gazteen kasuan, nagusiki) baita gure izatearen arrazoietakoa bat, eta, bestetik, **genero-ikuspegiak**, gure ustez, emakumeen ahalduntzea funtsezkoa izango baita nazioarteko komunitateak hurrengo urteetarako proposatutako helburu guztiak betetzeko; gainera, Garapen Iraunkorrerako Helburuek berdintasunerako eta diskriminaziorik ez izateko printzipioak azpimarratzen dituzte, emakumeen kasuan bereziki.

Ezin dugu ahaztu, bestalde, **Aita Santuaren Laudato Si' Entziklikan** edo Elizaren beste adierazpen batzuetan **ingurumenari** edo **emakumeen eta haurren eskubideei** ematen zaien garrantzia; beraz, **garapen iraunkorraren** planteamenduekin bat egiten dugu gure jarduketaren eremuan.





## Kanpaina nazioarteko agendan nola txertatzen den


Nazioarteko komunitateak, 2015. urteko irailean, Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) onartu zituen, Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) ordezkatu zituztenak. Garapen Iraunkorrerako Helburuek orain arte garapenerako lankidetzara gisa ezagutzen genuena aldatzeko xedea dute. Aurreko helburu horiek, **Klima Aldaketari buruzko Parisko Hitzarmenarekin** (COP21 izenez ezagunagoa) eta garapenaren finantziarioari buruzko **Addis Abebako Konferentziarekin** batera, aldaketa handiak ekarri dituzte nazioarteko harremanetan, baina baita herrialde bakoitzaren barnean ere, nazio mailan eta nazioarte mailan garatzeko aukerak eragotziko ez dituzten politiken koherentzia eskatzen baitute: ezer gutxirako balio du garapena bultzatzeko funtsen ekarpena egitea, gero gure gobernuak herrialde pobretuetan lan egiten duten eta ingurumenean kalteak eragiten dituzten edo pertsonen lekualdaketak eta segurtasunik eza eragiten dituzten enpresa multinazionalak babesten badituzte.

Askotarikoak dira garapen-agenda berriko aktoreak: botere publikoak, enpresak, erakunde akademikoak, gizarte zibil antolatua eta herritarrak, oro har. Ikus dezakezunez, horietako batean bakarrik sailkatu beharko bazenu zure burua, zaila izango litzateke; izan ere, norbanako gisa erakunde espezializatu batean hezkuntza-zeregin jakin bat garatzen dugu, baina, aldi berean, funtzio aktibistagoa betetzen dugu kanpaina hau bultzatzen dugun erakunderen batean, eta, bestalde, enpresa-ehunaren zati garrantzitsua gara baita ere. GIHeK, beraz, zuzenean dei egiten digute, funtsezko zeregina esleitzen digute munduko paradigma berrian, garapen iraunkorra lortzeko azken helburuarekin (gogoratu kontzeptu hori honela definitu dugula: egungo belaunaldien beharrak asetzeko gai den garapena, horretarako etorkizuneko belaunaldien aukerak eta baliabideak arriskuan jarri gabe.)

Pertsona guztiek dute garapen iraunkorrerako eskubidea, bizi diren tokian bizi direla: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotzen denez, pertsona orok du bidezko gizarte batean bizitzea duina izateko eskubidea. Giza eskubideak unibertsalak dira, eta estatuek horiek bete egiten direla bermatu behar digute herritar gisa, eta, are gehiago, hezitzaile gisa horretan inplikaturik gaudenoi (badakigu hezkuntzak pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurrean babesten gaituela).

Haurtzaroa eta gazteria gakoak dira GIHen betetzeari dagokionez: haiengan bete behar da helburu horien zati bat, etorkizun hurbila ordezkatzeko baitute. Kanpaina hauetan lortu nahi diren helburuen bitartez, haurrek eta gazteek haur eta gazte izateagatik dituzten eskubideak ezagutu ahal izango dituzte. Horregatik, garrantzi handia ematen diogu haur eta gazteek bizitzea publikoan aktiboki parte hartzeari, beren etorkizuna diseinatzeko aukera izan dezaten. Beraz, funtsezkoa da haiek helburuak ezagutzea, baina helburu horietan planteatutako arazoak arrazoiak ere ezagutu behar dituzte, pentsamendu kritikoa sortzeko eta gizartean aldaketa eragiteko beharrezko mobilizazioa bultzatzeko, helburu hauekin: justizia soziala, besteeikiko eta naturarekiko elkarbizitza, solidaritatea eta kanpaina bakoitzean landuko ditugun beste balio batzuk.





## Gosea eta pobrezia desagerraztea

**Garapen Iraunkorrerako Agendaren izaera multidimentsionalak** berori errazago aplikatzeko aukera ematen du, agenda osatzen duten 17 helburuek lotura estua baitute elkarren artean, eta, mekanismo horretako pieza batek huts egiten badu, gainerakoek ere herren egingo dute.

Zehazki, garapen iraunkorrerako 1. eta 2. helburuak funtsezkoak dira gizartearen garapen multidimentsionalerako, eta, bereziki, haurren garapenerako; izan ere, lehen esan dugunez, haurren eskubideak errespetatzen baditugu, gure planetaren etorkizuna bermatuko dugu.

Ekar ditzagun gogora gure kanpainaren muinak izango diren helburuak:



**Pobrezia mota guztiak desagerraraztea mundu osoan.**




**Goserik ez izatea, elikagai-seguritasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza iraunkorra bultzatzea.**

Milurtekoko Garapen Helburuetan (2000-2015), bi helburu horiek bakar baten barnean txertatuta zeuden. Kasu honetan, bi helburu berezi dira, baina elkarren artean lotuta daude. Hala ere, pobrezia mota guztiez eta mundu osoaz hitz egiten denez, bi helburu horiek bereizi egin dira; gosearen gaiaz hitz egiten badugu, bestalde, agenda honetan elikadura okerrera zuzentzen dira ahaleginak, gutxiegi jateak nahiz gehiegi jateak dakartzaten arazoengatik.

Helburu bakoitza garatzen hasi aurretik, datu bat azpimarratu nahi dugu: munduan, 836 milioi pertsona bizi dira muturreko pobrezian, eta 900 milioi pertsona inguru gose da.





## Pobrezia: zergatik existitzen da?

*Esklabotasuna eta apartheidak bezala, pobrezia ere ez da fenomeno naturala. Gizakiek eragiten dute, eta gizaki horiek berek desagerraraz dezakete, euren ekintzen bidez. Pobrezia desagerraraztea ez da karitatezko keinu bat, justiziazko ekintza baizik. Funtsezko giza eskubide bat babestea da, bizimodu duinerako eskubidea. Pobrezia dagoen bitartean, ez da benetako askatasunik egongo.*

*(Nelson Mandela)*

1. GIIHari dagokionez, 2000. urtera egin dezakegu atzera: Nazio Batuen Garapen Programak, bere txostenean, pobrezia kausa eta ondorioa zela zioen, eta giza eskubideen urratzeaz ere hitz egiten zuen. Milurtekoko Garape Helburuak aplikatu diren 15 urteetan, pobreziaren arloan aurrerapen sendoak egin dira: 700 milioi pertsonak pobreziatik irtetea lortu dute. Hala ere, kopuru hori ez da nahikoa. Garatzen ari diren eskualdeetako bost pertsonatik bat (1200 milioi pertsona inguru) egunean 1,25 dolar baino gutxiagorekin bizi da; hori da pobreziaren atalase gisa ezarri zen kopurua. Horietatik, **836 milioi pertsona pobrezia kronikoan bizi da**, aurrerapenak aurrerapen.

Pobreziaren arrazoietan eta ondorioetan sartu aurretik, pobrezia zer den definitzen saiatuko gara.

**Pobrezia ez da berez existitzen**, horretaz ziur gaude; pertsonok “fabrikatu” dugu pobrezia. Honela definitzen du pobrezia Hegoaren Laguntza Humanitarioko eta Garapenerako Lankidetzako Hiztegiak<sup>1</sup>: “pertsona baten gabezia maila gizarte jakin batek duintasuna izateko gutxieneko mailatzat jo duenaren azpitik dagoenean”.


Gerrekin, kolonialismoarekin eta beste eraso batzuekin lotutako arrazoi historikoez gain, pobreziaren beste arrazoi batzuk ere azter ditzakegu:

- **Axolagabetasuna:** herrialde edo eskualde aberatsek pobretuta bizi diren beste haien arazoak alboratu dituzte. Gizartearen berekoikeriaren ondorioz, gure ingurura baino ez dugu begiratzen (oro har), eta, kasu askotan, bidegabekeriaren aurka borroka egiteko moduetan lehentasunak ezarri ditugu. Hondamendi naturalek, goseteek eta antzeko egoerek gure kontzientziak pizten dituzte pobreziaren zenbait arrazoiren eta ondorioren inguruan, baina zaila da lan jarraitu eta etenik gabearren beharrez kontzientziatzea, horrelako egoerak berriro errepika ez daitezen.

- **kontsumo-gizartea:** multinazional handiek gaur egun oinarritzat erabiltzen duten merkataritza-ereduak pobrezian betikotzen ditu milioika pertsona munduan. Enpresa horiek, kontsumo arduratsuari buruzko kanpainen aurreko zikloan ikusi genuenez, herrialde pobreetako eskulan merkea erabiltzen dute beren produktuak herrialde aberatsetan merkeago saldu ahal izateko (askotan, haurren lana erabiltzen dute, eta esklabotasun-baldintzatan ia). Horrek guztiak, noski, kalteak eragiten ditu ingurumenean. Merkataritza-harreman horiek herrialde pobreetan enplegua sortzen duten arren, ezin daiteke esan harreman horiek bidezkoak direnik, ez eta berdintasunezkoak ere; horregatik, harreman horiek abiarazteak eta betikotzeak pobrezia areagotzen du.

<sup>1</sup> <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/172>





- **ustelkeria:** ustelkeriak jotako agintariak egoteak eta gobernu-sistemen ahultasunak nahiz gobernuen zeregina salatu eta ebaluatu dezakeen gizarte zibil antolatua ez izateak ere pobrezia areagotzen dute, sistema publikoen kaltetan (hezkuntza, osasuna eta oinarritzko beste zerbitzu batzuk, besteak beste) eta enpresetako eta politikako eliteen onurarako. Herrialde pobreetan, oro har, ustelkeria maila handia izaten da, eta herrialde aberats eta enpresa multinazional gehienek egoera horiek onartzen eta baliatzen dituzte.


- **klima:** klima-aldaketak ere pobrezia mailak areagotu ditu azken urteetan herrialde eta lurralde ahulenetan. Klima-aldaketaren ondorio asko herrialde aberatsek egindako edo ez egindako ekintzen emaitza dira, herrialde horietako industria-jarduerak sortzen dituzten gasen eta deribatuen erruz. Lehorteek, goseteek, hondamendi naturalek, klima-aldaketaren ondorioz sortutako gaixotasunek... horrek guztiak indar handiagoz eragiten die herrialde pobreei, larrialdi horiei aurre egiteko ahalmen gutxiago baitute. Horien guztien ondorioz, pobrezia jasaten dutenek pobrezia zirkulutik irteteko aukerak murriztuta ikusten dituzte.

**Biztanle kopuruaren igoerak** ere pobrezia handitzea ekarri du, eta arazo hori konpontzeko gure bizimoduetan aldaketak egin beharko genituzke, klima-aldaketarekin zuzenean lotuta baitaude. Nazio Batuen Biztanleria Funtzaren (UNFPA) arabera, 2050. urterako 9000 milioi pertsona biziko gara Lurrean, eta hirigune handietan biziko dira pertsona gehienak. Biztanleriaren hazkunde hori ez litzateke arazoa izango gure planetak baliabide mugatuak izango ez balitu; orain dugun bizi-kalitate berarekin bizitzen jarraitzeko, Lurrean biztanle gehiago izanda ere, neurriak hartu beharko ditugu maila guztietan (botere publikoek nahiz herritar guztiok), klima-aldaketari eragiten dioten gaitan, bereziki.

- **desoreka:** baliabideak banatzeko eta ustiatzeko garaian dagoen ekitate faltaren ondorioz, munduan pertsona askok ez dute sargai horiek eskuratzeko ahalmenik, eta, horren ondorioz, pobrezia pertsonalaren eta komunitateen pobrezia mailak betikotu egiten dira. Bestalde, desorekaz hitz egiten badugu, ezin dugu generoaren arloko desoreka ahaztu: emakume asko, emakume izate hutsagatik, gizartean eta politikan baztertuak izaten dira, eta, haien zeregina, kasu askotan, etxeko lanetara mugatzen da, hezkuntza jasotzeko edo askatasun pertsonala izateko inolako aukerarik gabe eta, askotan, indarkeria pairatuz.

- **elikagaien xahuketa:** duela zenbait urte, garapenerako gure kanpainaren izenburua “Janaria ez da bota behar” izan zen. Kontua ez da soilik janaria ez botatzea beste batzuek jatekorik ez dutelako, baizik eta ekoizpen-katearen edozein unetan janaria alferrik botatzea elikagaien prezio-igoerarekin zuzenean lotuta dagoela jakitea; hala, milioika pertsonak oinarritzko beste eskubide batzuei (hezkuntza edo osasuna, nagusiki) uko egin behar izaten diete jan ahal izateko. Prezio horiek, gainera, merkatu espekulatibo batean erabakitzen dira, eta klima-aldaketaren ondoriozko fenomenoek lotura estua dute prezioen igoerarekin. Gaur egun, planetako biztanle guztiak elikatzeko adina elikagai badago, baina arazoa elikagai horiek eskuratzeko eta baliabideak banatzeko orduan gertatzen da. Frantzisko Aita Santuak, 2017ko urrian, Elikaduraren Mundu Egunean, gai kezagarri honi buruz hitz egin zuen: “elikaduraren esparruko baliabideak espekulazioaren xede dira askotan; izan ere, ekoizle handiei baliabide horiek ematen dizkieten etekinen arabera neurtzen dira, edo kontsumo-estimazioen arabera [...] Horrela, gatazkak eta xahuketa bultzatzen dira [...]”.





Azkenik, ez dugu itxi nahi pobreziaren arrazoiei buruzko atal hau pobreziaren aurka borroka egiteko **borondate politikoa** aipatu gabe. Azken urteetan, garapenerako laguntza murrizteko joera agertu dute herrialde aberatsek, krisi ekonomikoaren aitzakiarekin. Giza eskubideak errespetatuko diren bidezko mundu baten alde borroka egiten dugun erakunde garen heinean, salatu behar dugu pobrezia, hein handian, herrialde aberatsetako politiken konpromiso eta koherentzia faltaren ondorio dela; jarrera horrek pribilegioen sistema eta desorekatzko harremanak bultzatzen ditu, eta, pobrezia-egoerei irtenbidea bilatu ordez, areagotu egiten ditu.


Pobrezia, hala ere, ez da eskualde pobreetako arazoa soilik. Azken hamarkadetan, pobreziaren fenomeno eta fenomeno horrek diru-sarrerak ez izatetik harago nola eragiten duen aztertu da. Ez dugu oso urrutira joan behar **pobrezia multidimentsionalaz** ari garenean zer esan nahi dugun jakiteko: Espainian, adibidez, lanean ari diren pertsonen ehuneko handi bat pobrezia-egoeran bizi da, edo pobrezia-egoera jasateko arriskua du<sup>2</sup>; gainera, krisiak areagotu egin du aberatsenen eta pobreenen arteko desoreka<sup>3</sup>, eta herritar askori oinarrizko zerbitzuak eskuratzeko aukerak murriztu zaizkie. Beraz, pobrezia diru falta baino gehiago da: gaixorik egotea, emakumea izatea, oinarrizko eskubiderik ez izatea edo lan duin bat ez izatea ere pobreziaren sinonimo dira. Horregatik, garapenerako agenda berrian, pobrezia-modu guztiak desagertzeko premia azpimarratzen da.

Nazio Batuen Garapen Funtsaren ustez, pertsona bat multidimentsionalki pobrea da gabeziak dituenean kontzeptu hori neurtzeko kontuan hartzen diren adierazleen heren batean gutxienez; pobrezia multidimentsionala larritzat jotzen da adierazle horien erdietan gutxienez gutxieneko estandarrak betetzen ez direnean. 10 adierazlek zehazten dute herrialde baten pobrezia multidimentsionala, eta hiru ardatz hauen inguruan multzokatzen dira: hezkuntza, osasuna eta gizarte-ongizatea.

2 “Soldaten beherakadak pobrezia-arriskuan jarri ditu langileen % 28”: <http://www.elperiodico.com/es/economia/20161103/pobreza-caida-salarios-exclusion-social-5604504>

3 “Espainia desorekaren lehen mailan dago EBn, baina milionarioen hazkundean ere bai”: [http://www.lasexta.com/programas/mas-vale-tarde/noticias/espana-lidera-la-desigualdad-en-la-union-europea-pero-tambien-el-crecimiento-de-millonarios\\_20160623576c24034beb28033037744d.html](http://www.lasexta.com/programas/mas-vale-tarde/noticias/espana-lidera-la-desigualdad-en-la-union-europea-pero-tambien-el-crecimiento-de-millonarios_20160623576c24034beb28033037744d.html)





## Gosea, izozmendiaren punta

*“Gosea izan da beti gizarte-aldaketan, aurrerapen teknikoan, iraultzen eta kontrairaultzen arrazoia. Beste ezerk ez du horrelako eraginik izan gizadiaren historian. Gaixotasunek eta gerrek ez dute inoiz hainbeste jende hil”.*

*Martín Caparrós.*

Pobreziarekin lotura estua du goseak (MGHetan helburu berean biltzen ziren biak). GIHen kasuan, gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta elikadura hobea lortzea, eta nekazaritza iraunkorra bultzatzea (2. GIHa) helburu independentea da, baina, azkenean, lotuta daude bi helburuak.

MGHetan aurrerapenak egin diren arren, kopuruek datu kezkarriak agertzen dituzte oraindik: bost urtetik beherako haurren heriotzen erdiak elikadura-urritasunaren ondorio dira. Gainera, beharrezko elikagaiak eskuratzeko ezintasunaren eta familien pobrezia eragiten duten beste faktore batzuen erruz, etorkizuneko belaunaldiek ere aukera mugatuak izango dituzte pobrezia zirkulutik ateratzeko (oraingoan ere, bi helburuen arteko lotura oso estua da). Hori gutxi balitz, 2017ko irailean, FAOk jakinarazi zuen gose mailak gora egin zuela lehen aldiz azken 15 urteetan<sup>4</sup>, eta gosearen ondorioz egoera ahulean dauden pertsonen kopurua 815 milioira iritsi da (2015ean baino 40 milioi gehiago).

Gizarte baten garapen multidimentsionalerako (ekonomikoa, soziala eta politikoa) aukerak handiagoak izango dira gizarte hori osatzen duen biztanleriak gizakion bizitzarako oinarrizkoa eta beharrezkoa den giza eskubide bat betetzen dela ikusten badu: elikadura. Horregatik, garrantzitsua da gosearekin amaitzea, pertsonen bizi-baldintzen hobekuntza eraginkorra lortzeko.

Lehenago, elikagaiak xahutzea pobrezia arrazoi bat dela esan dugu. Beraz, elikagai nahikoa badago, baina horiek eskuratzeko aukerarik ez dute zenbaitzuek. Gainera, pobrezia arrazoi bat izateaz gain, **elikagaien xahutzeak gosea ere eragiten du**: prezioek gora egiten dute, elikagaien esparruko espekulazioaren eta klimaren gorabeherak eragindako produktuen urritasunaren ondorioz, eta familiek, batzuetan, ezin dituzte elikadura egokia egiteko oinarrizko elikagaiak eskuratu.


Analisi honetan, gosearen beste arrazoi batzuk identifikatu ditugu, elkarren artean lotutakoak:

**gatazka armatuak:** elikadura-urritasuna duten hamar pertsonatik sei munduan gatazkaren batek eragindako herrialdeetan bizi dira. Elikadura urria duten pertsonen kopurua hiru aldiz handiagoa da garapen maila antzekoa duten baina gatazka luzeak bizi dituzten herrialdeetan.

Gerrak herrialde pobreetan gertatzen dira gehienetan, eta milioika pertsonak beren etxeak utzi behar izaten dituzte. Herrialde horietan, ihes egiten duen jende gehiena nekazaritzan aritzen da; bere jaiotetxeak uztean, inork ez ditu lurak lantzen, eta, kasu askotan, suntsituta gelditzen dira.

<sup>4</sup> [https://elpais.com/elpais/2017/09/05/planeta\\_futuro/1504624883\\_402058.html](https://elpais.com/elpais/2017/09/05/planeta_futuro/1504624883_402058.html)





Laborantzarako lurrik ez izateak elikagai falta dakar, eta, beraz, gosea. Aldi berean, gosea elementu desestabilizatzaile moduan erabiltzen da, interesak dituztenen aldeko gatazkak eragiteko (Acción contra el Hambre erakundeak Hego Sudan “gosearen produktu” gisa sortu zela esaten du, eta Tunisiako edo Siriako kasuak aztertzen ari dira; izan ere, herrialde horietan, laboreen prezioen igoera herrialdeen egonkortasuna hausteko estrategiaren zati da; gerrarako arma bihurtu da gosea).

- **behartutako tokialdaketak:** aurreko puntuan, gatazka armatuen erruz (terrorismoa barne) gertatzen diren tokialdaketez hitz egin dugu. Hala ere, ez dira bakarrak: **klima-aldaketaren** eraginez ere milioika pertsonak beren lurra utzi behar izan dituzte, uholdeen edo lehorteen ondorioz, besteak beste, eta ezin dute elikagairik lortu. Azken urteetan, lehorteek eta ‘El Niño’ eta antzeko fenomenoek sortutako hondamendiek eragindako goseteek pobrezian eta gosean murgildu dituzte milioika pertsona. Klimaren efektu horiek ez dira magiaren ondorioz gertatzen, baizik eta gaur egungo ekoizpen- eta kontsumo-ereduaren ondorio zuzenak dira.


-**politiken inkoherentzia:** Frantzisko Aita Santuak, 2017. urtean Elikaduraren Mundu Egunean eman zuen hitzaldian, herrialdeek, beren politika guztien bidez, gosearen eta elikadura-urritasunaren aurkako borrokan konpromisoa hartzeko premiaz hitz egin zuen. “Zertarako balio du salatzeak gatazken ondorioz milioika pertsonak gosea eta elikadura-urritasuna jasaten dutela, gero bakea lortzeko eta armagabetzeko eraginkortasunez jokatzeko ez bada? [...] Beraz, saia gaitezen gaixotasun sendaezina balitz bezala ez aurkezten”. Zalantzarik gabe, gai honek bereziki kezkatzen du Frantzisko Aita Santua. Laudato Si’ Entziklikan, gatazka berriak eragin ditzaketen arrazoiak aurreikusteari eta konpontzeari politikak arreta handiagoa eskaintzeko beharraz hitz egiten du (LS, 34). Ez nazioarteko komunitateak eta ez herrialde bakoitzak bere kabuz ez dute jakin gosearen kontra modu egokian borroka egiten, eta ez dira kontuan izan gosea gertatzeko beharrezko osagai guztiak; horregatik, ezin izan dute arazoa errotik erazi. Orain arte, garapenerako laguntza ofizialaren % 1 baino gutxiago zuzendu izan da gosearen aurkako borroka, horretan inbertitzeak ekonomian ekar ditzakeen hobekuntzak kontuan izan gabe: elikadura-urritasunak % 3ko galera sortzen du munduko BPGn, eta % 11ra iristen da kopuru hori Afrikan eta Asian; haurrek jasaten duten gosea arintzeko inbertsioak 16 dolarreko irabazia sortuko luke inbertitutako dolar bakoitzeko. Arrazoi ekonomiko hutsagatik bada ere, ez al litzateke komeniko ‘izurri’ horren aurka borroka egitea?

## Nola eragiten die goseak eta pobrezia haurrei eta emakumeei?

Garapen Iraunkorrerako Helburuak betetzeko, eta, zehazki, ikasturte honetako helburuak betetzeko (pobrezia eta gosea desagertzea), zeharkako beste alderdi batzuk gurutzatzen dira nazioarteko agendan nahiz gure eguneroko lanean: haurren eta emakumeen eskubideak.

Goseak nahiz pobrezia eragin berezia dute biztanleriaren bi sektore horietan, zaurgarritasun maila handia baitute. Ikus dezagun kontu hau zehazkiago.





## 1.Haurren eskubideak.

XX. mendeko 90eko hamarkadatik, erdira baino gutxiagora murriztu da haurren heriotza-tasa; hala ere, sei milioi haur hiltzen dira bost urte bete aurretik gosearekin, pobreziarekin eta saihets daitezkeen gaixotasunekin lotutako arrazoiengatik (esate baterako, ohitura higienikoekin lotutakoak).

Herrialde bateko pobrezia mailak zehazten ditu, hein handian, herrialde horretako zerbitzu publikoak. Ezin dugu haurren eskubideez hitz egin **hezkuntza** aipatu gabe. Herrialde pobreetan, hezkuntza-sistemek gabezia handiak izaten dituzte, eta oso modu negatiboan eragiten du horrek pobreziaren zirkulutik irteteko aukeretan; izan ere, frogatuta dago kalitatezko hezkuntza izateak zuzenean eragiten duela pertsonen bizibaldintzen hobekuntzan. Hezkuntza jasotzeko aukerak lan hobea eta soldata handiagoa izateko aukerak areagotzen ditu: urtebete gehiago ikasteak soldata % 10 handitzea dakar heldutasunean. Zalantzarik gabe, lan hobea eskuratzeko aukera izateak pobreziaren zirkulutik irteteko baldintzak errazten ditu.

Haurren eta haur horien amen **elikadura eta osasuna** ere funtsezkoak dira pertsonen garapenik onena lortzeko. Pobrezia- eta gose-tasa handiak dituzten herrialdeetan, haurrek ez dute elikadura egokirik bizitzako lehen urteetan, eta funtsezkoa da hori haur horien etorkizunean. Elikadura egokia eta ohitura higieniko egokiak izanez gero, 12 milioi haurrek hazkuntzan izan ditzaketen atzerapenak saihets daitezke.

**Elikadura** eskasak eragiten du, gaur egun, bost urtetik beherako haurren heriotzen % 45, hau da, hiru milioi haur baino gehiago hiltzen dira urtean. UNICEFen<sup>5</sup> **azterketa** baten arabera, Garapen Iraunkorrerako Agenda aurrera eramaten ez bada, bost urte baino gutxiagoko 68 milioi haur gehiago hilko lirateke, eta beste 119 milioi haurrek elikadura-urritasun kronikoa jasango lukete. Munduan, lau haurretatik batek gosearekin lotuta atzerapenak jasaten ditu hazkuntzan. Garatzen ari diren inguruetan, nagusiki Asia hegoaldean eta Saharaz hegoaldeko Afrikan, proportzio hori hirutik batekoa da. Munduan, Lehen Hezkuntzan dabilzan 66 milioi haur gosez joaten dira eskolara; horietatik, 23 milioi Afrikakoak dira.

GIHetan, **elikadura-urritasunaz** gain, **elikadura okerra** ere aipatzen da: ez dugu ahaztu behar, herrialde aberatsetan nagusiki, loditasuna dela haurren arazo handietako bat, eta gizarteko maila pobreenei eragiten diela gehien; izan ere, elikagai merkeak eta kalitate txarrekoak jan behar izaten dituzte, beste dieta batzuk egiteko aukerarik ez dutelako.


## 2.Emakumeen eskubideak.

Emakumeak eta neskak dira GIHen agendako funtsezko protagonistetako batzuk. Hainbat herrialde (Espainia tartean) genero-berdintasunaren eta emakumeen ahalduntzearen gaia agenda osoaren zeharkako elementu gisa hartzearen alde bazeuden ere, azkenean, helburu espezifiko bat txertatu zen (5. GIHa); hala ere, elementu egituratzaile gisa ere eutsi zaio. Gure kasuan, gai honen garrantzia kontuan hartu dugu, eta ziklo honetako kanpainetan agertuko da.

Genero-berdintasunaren zeharkakotasunak garapen-agenda berria betetzearekin, eta, zehazki, lehenengo kanpaina honetan landuko ditugun helburuak betetzearekin duen loturari dagokionez, Garapen Iraunkorrerako 1. eta 2. Helburuak betetzeak emakumeen eta nesken bizimodua hobetu dezakeela esan behar da.

5 Haurren aurrerapena: batez bestekoetatik harago: MGHeK irakatsitakoak: [https://www.unicef.org/spanish/publications/files/Progress\\_for\\_Children\\_WEB\\_Spanish\\_1607.pdf](https://www.unicef.org/spanish/publications/files/Progress_for_Children_WEB_Spanish_1607.pdf)





**Pobrezia desagerrarazteaz** hitz egiten badugu, badakigu historikoki emakumeek kultura gehienetan egoera ahula izan dutela, lana lortzeko (zainketa-lanez harago) eta hezkuntza jasotzeko aukerei dagokienez, besteak beste. Askotan, neskek ez dute eskolara joateko aukerarik izaten, rol patriarkalek ezarritako zainketa-zereginen etxean egotera behartzen dituztelako, etxeko lanak egiteko, eta horrek ikasteko eta, etorkizunean, lanpostu kalifikatuak lortzeko eta pobreziaren zirkulutik ateratzeko aukera kentzen die.

Kasu askotan, pobreziaren ondorioz, familiek eskolara nor bidali aukeratu behar izaten dute, eta gehienetan mutikoak hautatzen dituzte, gizonen etorkizun hobea izatea errazagoa dela pentsatzen baitute. Emakumeek, beraz, gizonen baino pobreziarako eta gizarte-bazterketarako arrisku handiagoa dute mundu osoan; arrisku hori, gainera, are handiagoa da emakume indigenak badira edo etnia minoritarioetakoak badira.

**Hezkuntza jasotzeko** aukera izango balute, emakumeek pobrezia-egoeretatik irteteko aukerak handituko lituzkete eta, horrez gain, beren seme-alaben zainketa ere eragin positiboa izango luke horrek, seme-alaben hazkuntza osasungarria bermatzeko beharrezko elikagaiei buruzko ezagutzak izango lituzketelako. Beraz, horrek adierazten digu emakumeak eskolara joaten badira gosearen arazoa ere murriztu egingo dela (nekazaritzan aritzen diren emakumeek ere ezagutza handiagoa izango dute lantzen dituzten produktuei buruz, eta lurrarekin izan ditzaketen arazoei aurre egiten jakingo dute). Gogoan izan behar dugu 2. GIHak (gosea amaitzea) elikadura-subiranotasunarekin eta lurraren zainketarekin lotutako helburuak hartzen dituela barnean.

**Gizonen eta emakumeen artean aukera-berdintasunik ez izateak** eragina du baita ere bi helburu horiek betetzeko orduan: herrialde pobreetan, ohikoa da emakumeak lurra lantzen ikustea<sup>6</sup>; hala ere, kasurik gehienetan, lurraren jabetza-tituluak gizonen esku daude<sup>7</sup> (gauza bera gertatzen da garapenerako laguntza ematen duten herrialdeetan, baita Espainian ere). Gainera, hezkuntza eskasak eta emakumeek gizartean duten desabantaila-egoerak ahulagoak bihurtzen dituzte haziak edo makineria erosteko garaian, besteak beste. Horrez gain, gosea ere agertuko da: emakumeak familiako euskarri nagusiak direnean, krisiak gertatzen badira haiek izango dira kaltetuenak, eta, beraz, gosea pairatzeko aukera gehiago izango dituzte bai emakume horiek, jateari uzten lehenak izaten baitira, bai beren familietako gainerako kideek.


Pobreziak, beraz, neskek etorkizunean emakume independente izatea lortzeko aukeretan ere eragiten du: kasu askotan, pobreziak **behartutako ezkontzak** hitzartzeraz bultzatzen ditu familiak, pobreziatik irteteko helburuarekin, edo gutxienez, familiaren egoerari eutsi ahal izateko.

6 Lan-indarraren % 43 ordezkatzen dute emakumeek garatzen ari diren herrialdeetan; Afrikan eta Asian, berriz, % 50era iristen dira: [The state of food and agriculture](#), FAO 2014.

7 Mundu mailan, lurren titulartasunaren % 20 dago soilik emakumeen esku, txosten honen arabera: [The State of Food and Agriculture 2010-2011: Women and Agriculture, closing the gender gap for development](#), FAO 2011.

8 Giza Garapeneren Indizea (GGI) giza garapeneren funtsezko dimentsioetan batez beste egindako lorpenen adierazle sintetikoak da: bizimodu luzea eta osasuntsua izatean, ezagutzak barnatzean eta bizi maila duina izatean. Nazio Batuen Erakundearen Garapenerako Programaren orrialde ofiziala: <http://hdr.undp.org/>





## Agendaren aplikazioa Espainian

Garapen-agenda honen ezaugarri berezietako bat, aurrekoarekin konparatuz gero (2000-2015), estatu guztien artean berori lortzeko zehaztu den erantzukizun partekatua da, konpromiso berberak hartuz, baina, betiere, herrialde bakoitzaren indizeen arabera bereizita. Herrialde guztiek, haien **giza garapenaren** maila edozein izanik ere<sup>8</sup>, Garapen Iraunkorrerako Helburuak bete daitezten lan egiteko konpromisoa dute, eta jarraipena egitea onartu dute, aldian-aldian ebaluatzeko zer alderdi hobe daitezkeen eta zer helburu bete diren.

Hainbat herrialdetan, Espainian, adibidez, gizarte-babesaren mailak garrantzitsuak diren arren, azken urteetan, **desoreka-ratioak** modu kezagarrian handitu dira.

Adibidez, **pobreziaren** aurkako borrokan (**1. GIHa**) dugun konpromisoa batez bestekoaren azpitik dago, “diru-pobreziaren, gabezien eta gizarte-babeserako politika eraginkorrik ez izatearen ondorioz”<sup>9</sup>; pobreziak, gainera, haurrei eragiten die gehien (gure herrialdean, hiru haurretatik bat pobrezian bizi da). **Gosearen** aurkako borroka hitz egiten badugu (**2. GIHa**), gure konpromisoen betetze mailari dagokionez, maila ertainean gaude, eta haurren loditasunak kezka sortzen du; kasu askotan, elikadura desagokia da loditasunaren arrazoia, eta gure herrialdean familia askok bizi duten pobrezia-egoeraren ondorio da elikadura desagoki hori.

Horregatik, garrantzitsua da gure ingurua ondo zaintzea uneoro, gure mugetatik kanpo gertatzen denari ere begiratzeaz gain; izan ere, askotan, egoera sozioekonomikoen eta politikoen ondorioz, herrialde batzuetan ezinezkoa da haurrei gure herrialdean dugun babesaren antzekoa eskaintzea.

## Zer egin dezakegu gosea eta pobrezia desagertzeko?

**1. GIHa** betetzeko, beharrezkoa da pertsona pobre eta ahulenek babes eta laguntza berezia izatea. Pertsona ahulenen talde horretan, noski, haurrak eta gazteak daude; horiekin lan egiten dugu egunero, eta, **Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren** bitartez, ezin kenduzko eskubideak esleitu zitzaizkien, eta hitzarmen hori sinatu zuten estatu guztiek errespetatu behar dituzte eskubide horiek<sup>10</sup>: esate baterako, estatuek elikadura okerraren aurka borroka egin behar dute, elikadurarekin lotutako oinarrizko printzipioak ezagutzera eman behar dituzte, eta, azken batean, haurren elikadura egokia bermatzeko beharrezko neurri guztiak hartu behar dituzte. Garapen Iraunkorrerako Agendak alderdi hori azpimarratzen du baita ere, eta, beraz, bikoitza da goseari aurre egiteko estatuek duten konpromisoa.

**2. GIHar**i dagokionez, besteak beste, helburua betetzeko beharrezkoa izango da haurrei zuzendutako gizarte-programak ezartzea eta hobetzea, elikadura segurua, nutritiboa eta askia bermatzeko, ez haurrei soilik, baita haien amei ere. NBE Emakumeak-en arabera, munduan gosea desagertzeko, beharrezkoa da emakume guztiek “nutriente egokiak dituzten elikagai nahikoa kontsumitzea”<sup>11</sup>.


9 Etorkizuna eraikitzen. Haurtzarora eta Garapen Iraunkorrerako Agenda (2030) Espainian: [https://www.unicef.es/sites/unicef.es/files/comunicacion/Infancia\\_Agenda\\_2030\\_Espana\\_UNICEF.pdf](https://www.unicef.es/sites/unicef.es/files/comunicacion/Infancia_Agenda_2030_Espana_UNICEF.pdf)

10 Gaur egun, herrialde bakar batek ez du hitzarmen hori berretsi: Ameriketako Estatu Batuak.

11 <http://www.unwomen.org/es/news/in-focus/women-and-the-sdgs/sdg-2-zero-hunger>

12 Emakume nekazariak baliabideak eskuratzeko orduan gizonen aukera berak izango balituzte, munduan gose direnen kopurua 150 milioitan murriztu ahal izango litzateke.





Helburu hau lortzeko, hainbat xede ezarri dira, kasu honetan bost. Xede horiek guztiak elikadura osasuntsua, nutritiboa eta askia bermatzearekin lotuta daude, eta haurren, haurdun dauden emakumeen eta bularra ematen ari diren emakumeen nahiz adineko pertsonen eta abarren elikadura okerra lantzen dituzte, inor atzean utzi gabe. Horrez gain, helburu honetako zenbait xede nekazaritza iraunkorrekarekin lotuta daude, ekoizle txikiei eta, bereziki, emakumeei<sup>12</sup> eta herri indigenei aukera gehiago emateko.

Hauze litzateke, beraz, azken helburua: **gizarte bidezkoago bat lortzea, eta planetako pertsona guztiak berdintasuna eta aukerak eskuratu ahal izatea, bizi diren tokian bizi direla, eta inor atzean utzi gabe.** Gogoratzen duzu?


Modu sinpleagoan adieraz dezakegu, eta hitzartutako konpromisoak beteko direla bermatzeko bi talde nagusi aipa ditzakegu: munduko agintariak –alde batetik– eta gu geu –bestetik–.

Bigarren kasu horretan, nahitaezko zereginen gure koadernoan hiru ekintza mota idatziko ditugu, “nahi dugun mundua” lortzen laguntzeko:


- Eragiten diguten arazoei buruz gure iritzia ematea, haurrei arreta berezia eskainiz, etorkizun hurbileko protagonistak baitira, bai eta gure ikastetxeetako eguneroko lanaren protagonistak ere.
- Egiaz izan nahi dugun eta ondorengoei utzi nahi diegun munduari buruz eztabaidatzea eta gogoeta egitea. Hezitzaile gisa betetzen dugun zereginetik, haurtzarotik piztu eta landu behar dugu kontzientzia soziala, haurren eta gazteen parte-hartzea sustatuz eta proposatutako helburuak betetzeko hartzen dituzten konpromisoetan lagunduz.
- Aurreko puntuak bete ondoren, funtsezkoa izango da erabakiak banaka nahiz taldean hartzea, garapen iraunkorreko eredu bati herritarrok hurrengo urteetarako garapen-agendan ezarritako moduan lagundu ahal izateko. Ziurrenik, gure jarrera pertsonal asko eta gure bizimoduak aldatu egin beharko ditugu; horretarako, solidarioak izan behar dugu, eta jabetu behar dugu mundua ez dela “ni eta orain” soilik. Frantzisko Aita Santuak, FAOren 2017ko konferentzian, hauze esan zuen: “bizi-estiloetan, baliabideen erabileran, ekoizpen-irizpideetan eta kontsumoan aldaketa bat proposatzeko dei egin zaigu [...] Ezin dugu etsi eta esan «beste batek egingo du» [...] Murriztea erraza da, baina partekatzeak aldaketa dakar, eta horrek gehiago eskatzen digu”.
- Sentiberatzea eta agendaren ezagutza handiagoa eta herritarron ardura handiagoa eskatzen duten kanpainen eta mobilizazioetan parte hartzea.

Azken batean, esaldi ezagun honen bidez laburbil dezakegu Garapen Iraunkorrerako Helburuak sustatzeko gure lana: **maila globalean pentsatu, toki mailan jardun.**






Beste urrats bat eman dezakegu kanpaina honetan garatutako Garapen Iraunkorrerako Helburu bakoitzean, eta ekintza zehatzagoetan har dezakegu konpromisoa:

	<p>Gure errealitateetatik helburu hau betetzen laguntzeko egin dezakegun lanari dagokionez, <b>gizarte-intzidentziarekin</b> lotutako zeregina dago, intzidentzia politiko eta gizarte-mobilizazio gisa ulertuta. Munduan dagoen gosearen arazoak pobrezia arrazoiak ikertzera eraman behar ditu herritarrak, eta pobrezia pertsonen bizitzan nahiz ingurumenean sortzen dituen ondorioak ere ikertu behar dira. <b>Informazioa</b> boterea da, eta zenbat eta informazio gehiago izan pobrezia buruz, orduan eta hobeto egin ahal izango dugu milioika pertsonak jasaten duten egoera hori aldatzeko.</p> <p>Behin informazioa eskuratu ondoren, gure inguru hurbilean partekatu ahal izango dugu, <b>zuzenean jarduteko zer aukera dugun ikusi ahal izango dugu, pobrezia arrazoiei eta ondorioei buruz gogoeta egin ahal izango dugu, kontsumo-eta bizi-ereduak baztertzeko edo aldatzeko moduan izango gara</b>, eta, ekintzaile sozial garen aldetik, <b>erakunde publikoei edo enpresei sinatu zituzten konpromisoak bete ditzaten neurriak hartzeko</b> eskatu ahal izango diegu.</p> <p>Beraz, gizartearen antolaketa funtsezkoa da, eta hezkuntzaren esparruak ez du hortik kanpo gelditu behar.</p> <p>Hala, bada, hauek dira norbanako gisa munduan pobrezia desagertzen laguntzeko hiru hitz magikoak: <b>informazioa biltzea, gogoeta egitea eta ekitea.</b></p>
---	---





2 GOSERIK  
EZ IZATEA




Helburu hau da, zalantzarik gabe, mundu mailako erronka nagusietako bat, eta, gure eguneroko bizitzaren eremu txikitik, hainbat gauza egin ditzakegu.

Pobrezia-modu guztiak desagertzeari buruzko helburuan gertatzen zen bezala, hemen ere funtsezkoa da herritar aktibo eta informatuen zeregina, erakunde publikoei eta pribatuei gosearen aurkako borrokan hartu dituzten konpromisoak betetzeko eskatzeko orduan.

Helburu honen barnean zehaztutako xedeetan aurrera eramateko jarduera zehatzen artean, **janaririk ez botatzen** saia gaitzke (12. GIHan ere lantzen da hori: ekoizpen eta kontsumo arduratsurako ereduak bermatzea), bai eta **bidezko merkataritzako eta tokiko** produktuak kontsumitzen nahiz gure ingurua **sentiberatzen**, merkatu mota horiek gosea murrizteko ahaleginean eragin dezaketela ikusarazteko. Hiriko baratze bat sor dezakezu, edo kontsumo-talde batean izena eman dezakezu. Bestalde, soberan ditugun elikagaiak partekatzeko aplikazioak eta proiektuak erabil ditzakegu ([Yo no desperdicio, yo comparto](#), [Ni las migas](#), [Red de Neveras Solidarias...](#)). Aukera ugari daude, eta erraza da horiek martxan jartzea...





## Ikus-entzunezko baliabideak:

- Garapen iraunkorra ulertzeko 2 minutu: <https://www.youtube.com/watch?v=I4wj61hScUQ>
- Garapen Iraunkorrerako Helburuak – zer diren eta nola lor daitezkeen: <https://www.youtube.com/watch?v=MCKH5xk8X-g>
- Garapen Iraunkorrerako Helburuak: [https://www.youtube.com/watch?v=zDU0Dk\\_OBVA](https://www.youtube.com/watch?v=zDU0Dk_OBVA)
- Garapen iraunkorraren historia: <https://www.youtube.com/watch?v=LQ1fQLeUYv0>
- GIH <https://www.youtube.com/watch?v=gQBJfYID0vA>
- Garapen iraunkorrerako 17 helburuak: <https://www.youtube.com/watch?v=345IxGgjF9s&t=4s>
- Zer dira GIHak? <https://www.youtube.com/watch?v=mvb3WD6-9Us>
- Munduan goserik ez izateko urratsak: <https://www.youtube.com/watch?v=9hxsLEzx1Zo>
- 1. GIHa: pobrezia desagerraraztea: <https://www.youtube.com/watch?v=N1tKwFC0OK8>
- 2. GIHa: goserik ez izatea: <https://www.youtube.com/watch?v=q4znfzULxqg>
- Garapen iraunkorra hip-hopeko erritmoan: <https://www.youtube.com/watch?v=cHwvCORidis>
- GIHak lortzeko bidea: GIHak betetzeak jendearentzat eta planetarentzat duen garrantzia erakusteko animazio-bideoa. [https://www.youtube.com/watch?v=z--NgagK2\\_Y](https://www.youtube.com/watch?v=z--NgagK2_Y)
- Munduko leziorik handiena: Garapen Iraunkorrerako Helburuak mundu osoko haurrei eta gazteei azaltzeko eta guztien indarrak batzeko webgunea: <http://worldslargestlesson.globalgoals.org/es/>
- Munduko leziorik handiena: UNICEFen eta *Project Everyone* proiektuaren arteko lankidetzari esker sortutako animazioa, egunero mundu osoko eskoletan mundu mailako helburu bat azaltzeko: <https://www.youtube.com/watch?v=iLjFg-xUzaQ>
- Zer mundu nahi dugu?: Haurrei, nerabeei eta gazteei zuzendutako gida, GIHei buruzkoa: [https://www.unicef.org/agenda2030/files/TWWW\\_A4\\_Single\\_Page\\_LowRes\\_Spanish.pdf](https://www.unicef.org/agenda2030/files/TWWW_A4_Single_Page_LowRes_Spanish.pdf)
- “Heroes para el cambio” komikia: [https://www.unicef.org/agenda2030/files/HeroesForChange\\_Spanish\\_WebQuality.pdf](https://www.unicef.org/agenda2030/files/HeroesForChange_Spanish_WebQuality.pdf)
- Giza familia bakar bat. Elikagaiak guztiontzat: <https://www.youtube.com/watch?v=i3NMYVBSFKo>
- “Bidaia bat berdintasunerantz” dokumentala (Vicente Ferrer Fundazioa): <https://vimeo.com/34890822>
- Zero HungerChallenge kanpaina: [www.zerohungerchallenge.org](http://www.zerohungerchallenge.org)
- Premiazko elikagaiak eskuratzeko kanpaina: <https://www.derechoalimentacion.org/>

